

IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko apirilaren 27an egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea Latsunbe auzoko (HM) VI.05 areako Xehetasun Azterlanari, CONSTRUCCIONES SUKIA SLk sustatzen duena. Dokumentua Xabier Uranga eta Zuria Aretxaga arkitektoek 2023ko otsailean idatzi dute.

BIGARRENA.- Dokumentua jendaurrean jartzea 20 eguneko epean, interesatuek dokumentua aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal ditzaten. Horretarako, hasierako onarpenaren erabakia GAOn, Gipuzkoan hedapen gehien duen egunkarian edo egunkarietan eta Udaleko web orrian argitaratuko da.

HIRUGARRENA.- CONSTRUCCIONES SUKIA SLri erabaki hau jakinaraztea.

Hernanin, 2023ko maitzaren 26an

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Alkatea,